

AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA ZERBITZU KONTRATUEN

ADMINISTRAZINO-BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

PROZEDURA IREKIA ETA LEHIAKETA BIDEZKOA

1.- Kontratuaren helburua:

Kontratu honen helburua **Formaziorako aholkularitza, prospekzioa eta proiektu estrategikoak burutzeko zerbitzua** kontratatzea da

2.- Helburuak / funtzioak:

***FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA**, Behargintza zabaldu zenetik ematen den zerbitzua da, gure erabiltzaileen enplegugarritasunerako, txertaketarako eta hobekuntza jarraiturako oinarritzko zerbitzua.

Formazioak berebiziko garrantzia du, norberaren gaitasun profesionala hobetzeko eta enpresek egun dituzten beharriaz aurre egiteko. Lan bila dabilenari zuzendutako **aholkularitza zerbitzua banakoa da**, norbere formakuntzaren gaitasunak eta eskasiak kontutan izanik laneko profil konkretu batera egokitzeke orduan.

Bestalde, lan merkatuko eskariaren nondik- norakoa (prospekzioaren bitartez) eta bertaratzen diren talde guztien beharriaz eta arazo bereziak aztertzen dira. Horrek bidea ematen digu **aholkularitza zerbitzuan formakuntzako ekintza planak ere diseinatzeko, gure erabiltzaileei zuzendutakoak zein enpresen beharretara egokitutakoak.**

***KOLABORAZIOA PROSPEKZIOAN**, Behargintza bezalako tokiko garapen agentzia baterako behar beharrezko zerbitzua da. Enpresetara hurbiltzen gaitu, euren beharriaz zeintzuk diren jakiteko, gure eskualdeko enpresa sarea zein den jakiteko, agentzia honetatik egingo ditugun ekintzarik gehienak oinarritzen direnak.

Gure enpresen egoera, euren beharriaz eta etorkizunerako asmoak zeintzuk diren ezagutzen uzten digu eta horrela agentziaz euren lehiakortasuna areagotzeko jarduerak diseinatu ahal ditugu. Ze jarduera lerrotan ari diren eta izan ditzaketen gabeziak zeintzuk diren jakiteak, informazio erabakigarria ematen digu etorkizunerako enplegu edo auto-enplegu hobiak ezagutzeko orduan eta balizko lanpostu horiek betetzeko neurriak hartzerakoan. Prospekzioa indartzea estrategikoa da gure Agentziarako.

*** PROIEKTU ESTRATEGIKOEN KUDEAKETA** gaur egun Behargintzatik garatzen ari direnak eta zehatzago Formazio Aholkularitza Zerbitzutik, Busturialdeko egoera sozioekonomikoaren diagnostiko batekin hasi ziren egitasmoak dira, Gernikako garapen agentziarekin lankidetzan. Biek hartzen dituzte barnean egitasmoak egin eta euron kudeaketan aktiboki parte hartzen dituzten herri guztiak. Lehenengo esku-hartze honetan eskualdeko nekazaritza-abeltzaintzaren egoeraren diagnostikoa egiteko beharrezana nabarmendu zen, baita bere gaitasunak eta eskualdeko produktuen merkatu hobiak ikustea. Erakunde desberdinak elkarlanean aritzen diren egitasmo estrategikoa da eta enpleguaren kalitatea hobetu dezakeena eta epe ertain-labur baten lana sor dezakeena.

2012tik, urtero, Eskualdeko Planetarako laguntzak egoten dira eta Bermeoko Udala da nagusiki eskatzaile, kudeatzaile eta dinamizatzailea. Plan hauek sektore jakin baten diagnostikoa ahalbidetzeaz gain, eskualde osoak batera lan egin eta eskualdeko garapen ekonomikoan sartzeko aukera eman du.

Proiektu Estrategikoen Kudeaketa, hala nola, eskualdeko diagnostikotik eratorritakoak, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen kudeaketa, baita prospekziara oso lotuta dauden Europako formazio eta enplegu proiektuetan elkarlana ere.

3.- Esleipen irizpideak:

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, esleipen irizpideak hauek izango dira:

1. Prezioa :	% 50
2. Zerbitzua bideratzeko lan metodologia:	% 45
3. Beste hobekuntza batzuk:	% 5

Irizpide baloratzeko kontuan izango da:

Prezioa (50 puntu): Eskaintza hoberenari 50 puntu emango zaio eta beste eskaintzak baloratuko dira formula honekin:

$$X = (\text{lizitazio prezioa} / Y) / (\text{lizitazio prezioa} / Z) * 50$$

X: Lortzen dan puntuaketa

Y: Baloratzen dan eskaintza

Z: Eskaintza baxuena

50: Emon daitekezan gehienezko puntuak

Eskaintza ekonomikoa aurkezteko modua eta irizpideak, baldintza teknikoan agirian zehazten da.

Zerbitzua bideratzeko lan metodologia (45 puntu):

- Proiektu estrategikoak garatzeko lan metodologia lanbideko irizpideak jarraituz (15 puntu)
- Formazio planak aurrera eramateko lan metodologia Lanbiden oinarrituta eta eskualdeko langabetuen formakutza kontutan harturik (15 puntu)
- Eskualdeko enpresak kontutan harturik prospekzioaren lan metodologikoa (15 puntu)

Beste hobekuntza batzuk (5 puntu): Udalarentzat interesgarria izan leiken beste arlotako laguntza, beste teknikari kolaboratzaileen eskutik (Adibidez: beste arlo batzuetako teknikarien laguntza...)

4.- Aurkezten diran eskaintzek euki beharreko gitxieneko edukina:

Lan metodologia (B gutunazala), diru proposamena (C gutunazala) eta baliabide tekniko eta pertsonalak (A gutunazala).

5.- Ordainketa modua:

Hilero, egindako eskaintzaren arabera 24 hilabetetan zatituta.

6.- Zerbitzu emango duen enpresaren gitxiengo ezaugarriak:

Esleitutako enpresak honako hauek betetu behar ditu:

- Orientazioan Lanbidek homologatua eta **10** urteko esperientzia.
- Laneratze agentzia izatea eta **4** urteko esperientzia.
- Lanbideko formazioa emateko homologatua egotea eta **10** urteko esperientzia.
- Langabetuentzako formazio ekintzak diseinatzen **10** urteko esperientzia.
- Enpresei zuzendutako formazio ekintzak diseinatzen **5** urtetako esperientzia.
- Enpresen prospekzioa burutzen **4** urteko esperientzia.
- 5 urteko esperientzia enpresei zuzendutako europar proiektuetan; hau da, enpresen lehiakortasuna hobetzeko, edota informazioko teknologien erabilera bultzatzeko (Adibidez, Mikrogunea, Valora izeneko proiektuak)
- Lanbidek, azken **3 deialditan**, diruz lagundutako Garapen Ekonomikorako eta Enplegua Sortzeko proiektu estrategikoak osotasunean kudeatzen esperientzia izatea. Diru laguntzaren eskabidea burutu, ekintzak martxan jarri, proiektuaren jarraipena, justifikazio ekonomikoa eta abar.

Zerbitzua emango duen enpresaren langileek, ezagutza hauek izan beharko dituzte:

- Lizenziaturako edo Diplomaturako ikasketak beharrezkoak izango dira.
- Administrazio publikoan esperientzia eta Administrazio-prozedurako ezagupenak
- Esperientzia formakuntzako planak diseinatzen bai banakakoak bai enpresei zuzendutakoak, kontutan izanik formakuntza arautua, etengabekoa eta okupazionala.
- Esperientzia garapen ekonomikorako proiektu estrategikoetan
- Euskara gaitasun nahikoa izatea bai ahoz, zein idatziz, lanpostuaren funtzioak normaltasun osoz euskaraz bideratzeko eta eman beharreko aholkularitza euskaraz emateko.
- Zerbitzua emango duen enpresaren langileek ordezkapenik behar izatekotan, ordezeko langileek hizkuntza gaitasun maila bera izatea.
- Lanbideko prestakuntza.
- Toki Garapena eta enpresei zuzendutako zerbitzuetan ezagutzak

Esleitutako enpresak bere langileei bestelako prestakuntza osagarria ematea baloratuko da.

Bermeon, 2016ko martxoaren 1ean